



Mahai sektoriala. Kontratazio bereziak aldi baterako kontratazioa arautzen duen Foru Aginduan.

Pozik gaude, gaur STEILASen urteotako eskaera bat aintzat hartu duelako Hezkuntzak. Horren bidez, Departamentuak kontratazio bereziak egingo dizkie titulazio-baldintza guztiak bete ez arren lanpostura egokitzen diren pertsoneri (batez ere, masterrik ez duten Lanbide Heziketako irakasleei, irakasle izateko langilerik ez duten espezialitateetan). Gainerako izangaien ondotik joango dira eta, zerrenda guztiak agortu ondoren, LETetan parte hartuko dute.

Departamentuak oraindik arautzeke duen arren, zerrenda hoietan 2023ko irailaren 1etik kontratua izan dutenak sartuko dira, baita ezohiko deialdietan izena ematen dutenak ere. Lehenengoak kontratu zaharrenaren arabera ordenatuko dira, eta bigarrenak eskaera aurkezten den dataren arabera. Udako kontratu luzapena ziurtatuko zaie 5 hilabete eta erdi lan egin badute, nahiz eta oraindik zerrendetan sartuta ez egon. Era berean, berriro eskatu dugu Lanbide Heziketako soldata arrakalak desagertzeko.

Beste kontu batzuk:

Bigarren Hezkuntzan irakasteko titulazio osoa ez duten irakasleak: beste epe bat irekiko da (urtarrilaren 19a baino lehen) Bigarren Hezkuntzako Gradua edo Masterra aurkezteko.

ILZ, EIBZ eta Proiektu eta Programen deialdiak: hautagaiantzako zozketaren letrak WX dira.

Orientatzaileak Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan: jarraibide espezifikoak emango dira Bigarren Hezkuntzako langile gisa ezarritako lanaldia bete dezaten.

Prestakuntza: Departamentuari eskatu diogu zirkular bat bidaltzeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetara, azaltzeko derrigorrezko prestakuntzako 35 orduetatik salbuesitako 10 orduak irakasleen lan pertsonalerako direla, eta ez ikastetxean egoteko.

LEP Irakaskuntza Artistikoak: azaroko bigarren hamabostaldian argitaratuko omen da.

STEILASek berariazko mahai sektorial bat eskatu du berriz ere zerrenden kudeaketari buruzko 37/2020 Foru Aginduaren beste puntu batzuen aldaketa jorrazteko, gai hauekin: puntuazioa, lehentasunezko eskubidea, lanpostu-trukeak, zonifikazioa, eskaintako lanpostuen informazio zehatza, espezialitatez eta hizkuntzez osatutako zerrenda integratua, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako egokitzapena eta beste puntu batzuk.

